horrelakoak ginen

Hona hemen gaur egungo Trintxerpe eraikita dagoen lur saila mende hasieran. Argazkia Altzatik hartua da, trenbidearen bestaldetik, eta Herreratik hurbilen dagoen Pasaiako portuaren zatia azaltzen zaigu.
Bertan ikus daitekeenez, egur trafikoa zen nagusi garai haietan portuan, baita mineral desberdinen garraioa ere, arrantzarako untzien esparruak San Pedro eta Donibane aldean zeudelarik.
Irudiaren gainaldean 'Trintxer' baserria ikus dezakegu, gerora gure herriko barrutiari izena emango zion baserria, alegia. Gaur egun 'Euskadi Etorbidea' izena duen kalearen arrastorik ere ez dago oraindik!

Iraganari begirada

TRITOIA

Tritoia zer den? Norbaitek azkar esango luke abere txikiren bat dela, uhandrea noski, bainan ez. Arrain isatsa eta bizar berdea daukan gizakia da. Ja!! " ez da posible, ezinezkoa da" pentsatu duzu, ba oker zabiltza berriro ere. Bestela galde iezaiezu orain dela bost mendeetako marinel pasaitarrei. Itsasontzian zihoazela olatu batek untziratu omen zuen tritoia eta harrapatzera abiatu zirenerako beste batek jota edo, kanporatu.
Beraz, konturatu zara dagoeneko mitologiari lotuta dagoen biziduna dela. Nik ere "Euskaldunak" entziklopediako ale batean irakurritakoan, halaxe jakin nuen.
JOSEBA ANTXUSTEGIETXARTE

Pasaiako herri-aldizkaria

branka



Kale-izendegiaren aldaketa, herriko ondare historikoa berreskuratzeko saioa

2000ko iraila
08 zenb.

Elakarrizketa: Pasaiako arraunlariekin solasean

branka

Pasaiako herri aldizkaria

2000KO IRAILA / 08 ZENB.

Argitartzaileak:
Arnasa Euskara Elkartea
Abaraska Euskara Elkartea
Tel: 943 341 045
Lege Gordailua:SS-42/2000
ISSN:1576-0138
Inprimategia:
Antza

Tirada:
2500
Branka aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Koordinatzaileak
Olatz Mitxelena eta Urko Etxebeste
Publizista
Larraitz Rubio
Hizkuntza arduraduna
Izaskun Aldezabal
Diseinua
Txema Garcia Urbina
Kolaboratzaileak
Jon Vicente, Luis Mari Laboa, Olatz Sistiaga, Imanol Carballo,Jon Goikoetxea, Birjinia Ortega, Ixiar Goienetxea, Juan Olalde, Izaskun Aldezabal, Gorka Muñoz, Markos Sistiaga, Idoia Vicente, Patxi Porta, Aintzane Taberna, Erkuden Muguruza, Edurne Urkiola, David Zapirain, Maripi Etxarri, Patxi Otxoa, Bernar Arratibel, Asier Vilas, Xabi Etxaniz eta Patxi Berdote.

harpidetza-txartela

***BRANKA** aldizkaria hilero dohainik zure etxeko postontzian jaso nahi baduzu, bete ezazu beheko aldean duzun harpidetza txartela, eta bidal iezaguzu behean aipatzen den helbidera.*

Izen-deiturak.....

Helbidea .....

Herria .....Tel.....

Herrialdea.....

Bidaltzeko
ARNASA EUSKARA ELKARTEA
"BRANKA aldizkaria"
ESKALANTEGI KALEA 38, BEHEA -
20110 PASAIA (Gipuzkoa)
Tel.:943 34 10 45

Aldizkari honek Pasaiako udalaren laguntza jaso du

laburrean

5. EZ ZAITEZ MOZTU

6-13. BARRUTIZ BARRUTI

14. ERREPORTAJEA
Kale izendegi berria, herriko ondare historikoa berreskuratzeko saioa

20. KALE-INKESTA
Zer iruditzen zaizu kale-izendegiaren aldaketa?

22. ELKARRIZKETA
Pasaiako arraunlariekin solasean

26. KULTUR AGENDA

kutxa gizarte-ekintza obra social

telefono interesgarriak

UDAL ZERBITZUAK
Gizarte zerbitzuak:
943391187
Kultura, euskara eta gazteria:
943400108
Idazkaritza:
943344140
Dirubilketa:
943522150/4
Kontuhartzailetza:
943344157
Diruzaintza:
943344153
Hirigintza:
943344224
Udaltzaingoa:
943400000
Obrak eta zerbitzuak:
943393693
Antxoko Udal Liburutegia:
943515737
Trintxerpeko Udal Liburutegia:
943401053
San Pedroko Udal Liburutegia:
943399348
Pasaia Musikal Udal Fundazioa:
943396055

LARRIALDIAK
DYA:
943521557
Gurutze Gorria:
943511605

BAILARAKO EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEAK
Lau haizetera:
943341048
Orratx:
943519144
Branka:
943341045
Oarso Telebista:
943493818/19
Oiartzun Irratia:
943493711

internetekо helbideak

EUSKARA
Elhuyar:
www.elhuyar.com
Argia:
www.argia.com
UZEI:
www.uzei.com
IVAP/HAEE:
www.ivap.com
UPV/EHU
www.ehu.es
Udako Euskal Unibertsitatea
www.ueu.org
Euskal Herrian euskaraz
http://www.geocities.com/capitolHill/7012/

EUSKARA TALDEAK
Gerediaga elkartea
http://www.eusnet.org/partaide/gerediaga/home.htm
Bagera
http://www.jalgi.com/topagunea/bagera

BILATZAILEAK
www.jalgi.com
www.owr.com
INSTITUZIOAK
Arabako foru aldundia
http://www.alava.net
Bizkaiko foru aldundia
http://www.bizkaia.net
Gipuzkoako foru aldundia
http://www.gipuzkoa.net
Nafarroako foru aldundia
http://www.cfnavarra.es
Eusko Jaurlaritza
http://euskadi.net
BOPV
http://www.euskadi.net/bopv
Emakunde
http://www.emakunde.es

Goardiako farmaziak

Urriaren 5ean: Ignacio Ormazabal. Eskalantegi 32. Pasai Antxo. Telefonoa: 943 510781
Urriaren 7an: Ana Isabel Sancho. Blas de Lezo 11. Pasai An-txo. Tel.: 943 510545
Urriaren 18an: Ignacio Ormazabal. Eskalantegi 32. Pasai Antxo. Telefonoa: 943 510781
Urriaren 30ean: MªLourdes Martinez Lagos. San Juan kalea 22. Donibane. Tel.: 943514645

besteak

JAIOTZAK, HERIOTZAK ETA EZKONTZAK

Irailan, 3 pasaitar jaio dira, 4 pertsona hil dira, eta 6 ezkontza ospatu dira.

ODOL-EMAILEAK

Urriaren 11n Trintxerpen eta San Pedron.
Urriaren 18an Pasai Antxon.

ALTZARIAK JASOTZEKO EGUNAK

Urrian, jarraian zehazten diren egun hauetan jasoko dituzte altzari zaharrak:
Trintxerpen, urriaren 2an
San Pedron, urriaren 3an
Antxon, urriaren 4an
Donibanen, urriaren 5ean

ez zaitez moztu

BRANKA ALDIZKARIKO ERREDAKZIOAREN OHARRA

Begi aurrean duzun hau zure iritziak jasotzeko Brankak eskaintzen dizun lekua da. Pasaiako AEK euskaltegikoek igorritako eskutitzari egin diogu tarte, eta aurrerantzean zuen guztien gutunak jasotzeko irrikan gaude; kezkak, txaloak, kritikak, iradokizunak... den-denak izango du lekua gure postontzi pottolo honetan. Beraz, anima zaitezte, eta gehiago pentsatu gabe igorri zuen eskutitzak kontrazalean ageri zaizuen helbidera. Laister arte.

Eta datorren ikasturtean zer?

Dagoeneko amaitu da uda. Adio hondartzari. Adio gau epelei eta bidaiei. Eta orain zer? Orain erabakiak hartu behar! Kaixo zalantza garaiari. Zer egingo ote dut ikasturte honetan? Hona hemen zalantza zerrenda luze bat:

- Kokoteraino nago nire lanean. Lanean jarraitu eta nagusiari men egin ala lana utzi eta beste bat bilatu nahiz eta badakizun nahikoa zaila izango dela?
- Udan pasatu egin naiz eta gizenegi nago. Dieta gogor bat hasi eta hozkailuan duzun txokolatezko pastela bizilagunari oparitu ala zure buruari mila bider errepikatu ez dela horrenbesterako?
- Ez nago batere gustura unibertsitatean. Egin duzuna utzi eta beste zerbaitetan hasi ala inolako gogorik izan gabe ikasketak amaitu?

Hemendik aurrera arratsalde guztiak libre. Etxeko sofan eseri eta Pako porrasen bizitza "super-interesgarria" ikusi bazkal osteko saioetan ala izena eman Kultur Etxeak antolatutako pintura ikastaroan?

- Etxea zurekin konpartitzen duten lagunak jatorrak dira baina... beste ikasturte bat iraun eta oso gustura ez egon ala beste txoko bat bilatu bertako jendea jatorra den ala ez jakin gabe?
- Lagunak berarekin bizitzera joan zaitezen eskatu dizu. Berarekin joan eta arropa lisatzen ikasi ala amarenean geratu eta berak hain ondo prestatzen dituen babarrun goxo askoak bazkaldu astero bitan?
- Bigarren aldiz irakurri dut idatzi hau eta ez dut oso ongi ulertzen. Ulertu gabe hurrengo orrialdera pasa eta ea, behintzat, argazkirik ote dagoen begiratu ala euskaltegira joan, izena eman eta behingoz euskara ondo ikasi...?

Hainbat zalantza dira zerrenda honetan daudenak eta ziur askoz ere gehiago izango direla. Guk, Pasaiako AEKko irakasleok, gomendio bat baino ez dizuegu eman nahi. Zuen zalantza azkena baldin bada, alegia, idatzi hau irakurtzean arazoak izan badituzue, ez izan inolako zalantzarik: euskara ikastea merezi du eta guk poz haundiz irakatsiko dizuegu. Ez utzi hurrengo baterako eta ez galdu aukera paregabe hau.
Ala nahiago duzu argazkiak begiratzen soilik jarraitu?

Trintxerpeko AEK euskaltegia. Euskadi etorbidea 29, 3. Tf:943.39.58.12
Txirrita AEK euskaltegia. Zumalakarregi 9 atzea, Pasai Antxo. Tf:943.52.55.45

GURE HERRIKO ENERGIA NATURALA
Euskadi etorbidea z/g
Trintxerpeko Alkate-Ordetza
tlf.:943.39.57.86
Gas Pasaia

donibane

Iñaki Lopetegi, korrikalaria

Arratsaldeko 18:30ean gelditu naiz Iñakirekin eta puntu-puntuan azaldu da, hori bai, korrika. Eseri eta hizketan hasi orduko antzematen zaio 29 urtetako sanjuandar honi indarra soberan duela. Izan beharko, sukaldean, lanbidez sukaldari baita, kilometro asko egin ondoren, egunero egiten dituen entrenamenduetan beste 20-25 kilometro egiteko. Korrikalari honek Niloko marathoia irabazi berri du eta hurrengo helburu garrantzitsuena Donostiako marathoian bere denbora -2 ordu 27 minutu- jeistea izango da.

Nola hasi zinen atletismoan?
16 urterekin hasi nintzen lasterka, nahiko lodia nengoen, ia 80 kilo pisatzen nuen, eta argaltzeko korrika oixka bat egitea erabaki nuen.

Beraz hasieran ez zen gustoko gauza bat izango?
Ez, pisu gehiegi duzunean ez da erreza korrika egitea, lehenengo egunetan 20 minutu egiten nituen eta gorputza ariketarekin ohitutzen joaten da. Horrela pixkanaka hasiera batetan betebehar bat zena gustoko bilakatu zen. 17 urterekin, nire anaiak animatuta, nire lehenengo Behobia-Donostia egin nuen eta nahiko denbora onean gainera.

Geroztik entrenamenduak zure kaxa egiten dituzu edo talde batetan aritu zara?
Bidasoa taldean hasi nintzen eta bertan jarraitzen dut, orain Arratibel medikuaren laguntza ere badut.

Distantzia luzetan aritzen zara, gustokoak dituzulako, hobeto moldatzen zarelako...?
Esan bezala Behobia-Donostia izan zen nire lehenengo froga eta geroztik iraupen luzeko frogatan aritu naiz, bi arrazoi horiexengatik: gustura aritzen naizelako eta emaitza on xamarrak lortzen ditudalako. Azken aldi honetan mendiko marathoietan parte hartzen hasi naiz eta froga hauetan oso gustura sentitzen naizela esan behar da.

Modan dago froga mota hau, ezta?
Bai, inguruan horrelako froga asko dago, garai batetan ezagunena Anetoko igoera zen, mundu mailan Nepalen 5.000 metrotara korritzen dena edo 'Sahara Marathon de los sables' izenekoa aipagarriak dira. Nik, lehen esan dudan bezala, mendian egiten diren lasterketa harek gustuko ditut; ez duzu asfalto gainean korrika egiten, ingurua ederra da eta partaideen artean giro ederra sortzen da

Kontaiguzu Niloko marathoian izan duzun esperientzia.
Egin ditudan mendiko frogetan oso postu onak lortu ditut eta honek Niloko Marathoian parte hartzera animatu nau. Froga hau lasterka edo txirrindan korritu da. Aurtengo abuztuan izan da lehenengo edizioa eta karrerari ospe pixka bat emateko Claudio Chiapucci txirrindulari ohia ekarri dute, bera izan delarik irabazlea txirrindako moladidadean. Lasterkako frogan 13 etapatan 250 km, egunean 20 bat km, egin behar izan ditugu, 3 etapa Gasteiz aldean eta gainontzeko 10ak Egipton, Nilo ibaiaren ertzean.

Egipton eta abuztuan tenperatura altuak izango zenituzten.
Bai. Irteera goizeko 06:00ak aldera izaten zen, 10:00ak aldera etapa bukatuta izateko. 40º-48º izaten genituen, eguerdi aldera 50ºtatik gora markatzen zuen termometroak, orduan itzaletan lasai egon hobe.

herriko bazterrak

Berpizkundeko edo Errenazimenduko eraikuntzak Donibanen

Orain dela urte batzuk, Zaragozan ikasten ari nintzela, Berpizkundeko arkitekturaren historia ikasi nuen, eta une horretan nire herrian horrelako eraikuntzak egongo ote ziren pentsatzen hasi nintzen. Donibanera joan nintzen hurrengo bidaian hori ikertzea erabaki nuen eta bi eraikuntza aurkitu nituen: Miranda etxea eta Villaviciosa jauregia.



Gaur azken honi buruz hitz egingo dut. Villaviciosa jauregia Pietatean dago eta harlanduz egindako Berpizkundeko jauregi bat da. (Berpizkundea:XVI-XVIII mendeak).
Jauregi honek oinplano irregularra du, eta eskuin aldean eskailera bat.
Bi fatxada ditu, bat mendira begiratzen duena eta bestea, berriz, Donibane kalera. Azken hau fatxada nagusia da eta hiru solairu ditu, eta baita XX. mendean erantsitako solairu berria ere.
Beheko solairuan bi pilare adosatuen artean armarririk ez duen ate bat aurkitzen dugu. Ondoan leiho bat eta ate bat daude, eta baita Lafayetten omenez eginiko plaka bat duen lauki angeluzuzena. Plaka hau 1963. urtean ipini zuten.
Lehenbiziko solairuan hiru leiho aurkitzen ditugu, bi handi eta txiki bat. Bi leiho haundiak txaranbeldutako molduratan kokaturik daude eta oso ongi landutako dintela dute. Bigarren solairuan hiru leiho haundi daude eta lehenengo solairuko ezaugarri berberak dituzte.
Solairu bakoitzean, leihoen eskubandaren alturan moldura bat dago, eta moldura hau erlaizan ere aurkitzen dugu.
Gaur egun fatxada nagusian ez dago armarririk baina orain dela gutxi arte han zegoela badakigu eta gainera ezker alboko fatxadan armarriaren kopia bat dago, Villaviciosa familiarena.
Jauregi eta familia honi buruzko hainbat dokumentazio iritsi zaigu. Familiari dagokionez, badakigu Donibanera duela mende asko etorri zirela, eta jauregiari buruz, berriz, dokumentu zaharrena 1738. urtekoa dela.
Dokumentu hauen bitartez jakin dugu behin baino gehiagotan jauregia konpondua izan zela, bai egoera tamalgarrian zegoelako bai harriak erori zitzaizkiolako.

pasadizoa

Kalimero

70.eko hamarkadan, San Roque, Lourdes Txiki eta Juan XXIII auzoetako haurren futbol zelaia Lourdes Txikiko arkupeak ziren. Hemen jokatzen ziren partiduak bukaezinak ziren eta ez zen harritzekoa talde bakoitzean hogei lagun ikustea. Partiduen amaiera partaide baten amaren "Mazinger Z hasi da" oihuarekin ematen zen, futbolari guztiak abiadura bizian etxera joaten baitziren. Baina bestetan, futbol zelaian kotxe bat sartzen zelako ematen zitzaion amaiera partiduari. Zoritxarrez, denborarekin gero eta kotxe gehiago zeuden eta nahiz eta pibote batzuk egon, bat apurtu eta arkupeetara sartzen zituzten kotxeak. Handiak ziren jokalari eta kotxeen arteko eztabaidak baina, beti bezala, handiak txikia izorratu eta haurrak arkupetan jolastu gabe gelditzen ziren.
Baina, eztabaida bizian ari ziren batean, guardia munizipala bat agertu eta haurren eta kotxearen jabearen kexak entzun eta gero "kotxeak kanpora; haurrek jolastu behar dute" esan zuen, haurren poza eta algarak auzo guztian entzun zirelarik.
Eta aurrerantzean, haurrek guardia munizipala bere kasko txuriarekin ikusten zuten bakoitzean "AUPA KALIMERO!!!" oihukatzen zioten.

KUÑAU

TESTUAK: XABI ETXANIZ / PATXI BERDOTE

trintxerpe

Trintxerpen iribarreak nagusi

Gaur hilak 16 ditu. Larunbata da eta primerako eguraldia dago. Hondartzarako egokia. Baina gaur ez. Gaur, haurrak ez dira hondartzara joango olatuekin plisti-plasta egitera, gaur bezalako beste edozein larunbatea egingo luketen bezala. Izan ere, gaur Takola, Pirritx eta Porrotx pailasoek euren hondartza ekarri baitute Trintxerpeko frontoira.

Abaraska Euskara Elkarteak antolatutako emanaldia 17:30etan hasiko da. Hala ere, 16:30ak aldera hasi dira lehendabiziko haurrak iristen. Haur batzuk, jakinminez, atetik begiratu dute ea euren heroiak prest dauden eta, lotsaturik, ea noiz hasiko den galde egin dute. 'Oraindik ez' izan da antolatzaileen erantzuna. Barruan lanean ari direnak dena prestatzen ari dira emanaldia ondo baino hobeto atera dadin: teknikoak musika ekipoak prestatzen, Abaraskakoak 250 aulki jartzen gurasoak eroso egoteko, pailasoak emanaldian erabili beharrekoak txukuntzen...

17:00ak dira eta frontoiko ateak itxita daude oraindik. Kanpoan, gurasoak eta haurrak ilara luze batean daude. Gehienek sarrera aldez aurretik erosi dute, bada ez bada ere, baina badira batzuk sarrerik gabe etorri eta bertan erosi dutenak. Sarrerik gabe edo sarrera erosita, gero eta jende gehiago hurbiltzen ari da. Gurasoak elkarrekin hitz egiten ari dira eta haurrak txintxotxintxo. Txintxoegi akaso. Badirudi 'Amatxok esan dit txintxo izan behar dudala edo bestela ez dudala Takolo ikusiko' pentsatzen ari direla. Eta halako batean ilara mugitzen hasi da. Barruan dena dago prest eta frontoiko ateak zabaldu dituzte.

Piskanaka-piskanaka haurrak eta gurasoak sartzen hasi dira, haur batzuk korrika eta beste batzuk amatxo edo aitatxori eskutik helduta. Eszenatokiaren aurrean marrazkiz beteriko plastikozko alfonbra handi bat dago bertan haurrak eser daitezen. Atzeraxeago aulkiak helduentzat. Dena betetzen hasi da. Haurrak zain daude, urduri eta irrikaz, pailasoak noiz aterako zain. Eta frontoiaren kanpoko aldean ilara sekula ez dela amaituko dirudi.

17:30etan, Abaraskako lagunak pozaren pozez daude. Izan ere, 600 lagun baino gehiago hurbildu baitira pailasoak ikustera, ez dago batere gaizki, gero! Emanaldia hasi da. Haur txiki batzuk negarrez hasi dira eta gurasoek kanpora eraman behar izan dituzte. Akaso txikiegiak dira horrenbeste zarata jasateko baina beste haur guztiak alfonbran daude eseritak, adi-adi pailasoei begira. Haurretako bat, neskato bat hain zuzen, zutitu da eta eszenatokiaren aurre-aurrean jarri da. Dirudienez bere tokitikondo ikusi ez eta Porrotx gertutik ikusteko emanaldi osoa zutik egoteko prest dago. Pailasoak hondartza batean daude eta haur guztiek barre egiten dute atso lodikote bat eszenatokira igo bezain pronto. Ziurrienik galdetzen ari dira ea nola den posible atso horrek halako ipurdi handia izatea. Pailasoak kantatzen hastearekin batera haurrak aztoratzen hasi dira. Pailasoan keinuak errepikatzen dituzte behin eta berriro. Haur gehienek ezagunak dituzte kantak eta ez dute arrazorik kanta jarraitzeko. Gurasoen aurpegietan irribarre zabal bat dago. Hauek ere barre egiten dute pailasoen imintzioekin. Denak primeran ari dira. Eszenatokian pirata baten txanda da. Haur guztiek batera oihu egin diote Pirritxi, ezetz, hori ez dela hartu behar reko ezpata baina Pirritx ez da enteratu. Hau al da? Galde egin du eta haurrak berriro: ezzzzzz. Hau bai??? Eta denek batera: baiiiiiii. Piratak oilo bat jarri dio Pirritxi buruan eta haurrak ahoa bete hortz geratu dira. Izan ere oiloa bizirik baitago baina ez da Pirritxen burutik erortzen nahiz eta hau saltoka aritu. Azkenean Takolo, Pirritx, Porrotx eta pirata, denak batera hasi dira dutxaren alde onuragarriak goraipatzen duen kanta bat kantatzen eta haur guztiak zutitu dira haiekin batera dantza egiteko. 18:30ak dira eta ikuskizuna amaitzen hasi da.

Orain denak kantatzen ari dira. Kontzerturako 'bis' bat balitz bezala, Takolo eta bere lagunek azken unerako utzi dituzte euren kantarik ezagunenak. Haur guztiak zutik dantzatzen ari dira edo, behintzat, dantza baten itxura duen zerbait egiten. Gurasiak ere zutitu egin dira eta badago kantak dakienik ere. 'Geuria da...da...geuria da eup!!...geuria da... da... geuria da eup!!'. Kanta honekin batera pailasoak eszenatokitik jaitsi dira eta musuak banatzen hasi. Trintxerpeko frontoian eromena da nagusi. Haurrek- eta gurasoek- pailasoak inguratu dituzte. Denek musu bat lortu nahi dute, eta, deskuidoan, pailasoekin argazki bat ateratzea edota beraien kamiseta bat lortuz gero zoriontasuna erabatekoa izango da. Piskanaka-piskanaka frontoia hustuz doa. Azken musuak eta azken argazkiak. Haur guztiak pozaren pozez doaz etxealdera. Gurasoak ere bai. Aulki guztiak jaso aurretik, Abaraskako lagunak azken argazkia atera dute Takolo eta Pirritxekin. 'Marketing'a ere garrantzitsua omen da. Abaraskakoak ere pozaren pozez daude.

Abaraska Euskara Elkartearen bazkide kanpaina

Ia urte hasieratik gure barrutiko elkarte eta talde desberdinak Udako oporraldia bukatu ostean, Abaraska Euskara Elkarteak berriro ekin dio bazkide kanpainari. Euskararen normalizazioaren alde lan egiteko ekaina aldean sortutako elkarte honek deia luzatzen dizue Trintxerpe eta San Pedroko euskaltzale guztioi bazkide izan zaitezten. Horretarako, lerro hauen azpian doakizuen bazkide txartela bete eta bidali Abaraska Euskara Elkarteak Trintxerpeko azokaren 2. Solairuan duen egoitzara. Bestela ere, Abaraskakideek jakinarazi nahi dizuete egoitza bera zabalik aurkituko duzuela goizez 9etatik 1etara eta arratsaldez 6etatik 8etara. Azkenik, edozein zalantza izanez gero, 943.39.10.00 telefonora dei egin dezakezue.

Matrikula Zabalik Trintxerpeko AEK euskaltegian

Trintxerpeko AEK euskaltegikoek matrikulatzeko epea oraindik ez dela amaitu jakinarazi nahi dizuete. Beraz, euskara ikasteko aukera paregabea galdu nahi ez baduzu, izena eman lehenbailehen AEKk Trintxerpen duen euskaltegian. Bulego ordutegia honako hau da: goizez 10etatik 1'30etara eta arratsaldez 4'30etatik 8etara. Informazio gehiago nahi izanez gero 943.39.58.12 telefono zenbakira deitu.

b a z k i d e t z a t x a r t e l a

ABARASKA EUSKARA ELKARTEA

Izen abizenak.....
Helbidea.....
Telefonoa..... NAN zenbakia.....

B a z k i d e t z a k u o t a

☐ Langilea (4.000 pzta. urtean)
☐ Langabea (2.000 pzta. urtean)
☐ Besterik (zenbatekoa zehaztu:_____pzta.)

o r d a i n k e t a m o t a

☐ Kontutik kendu.
(jarri kontuaren 20 digitoak eta baimena sinatu. Kuota Urriaren 5ean pasako dugu.)
K/K zenbakia:_____
Abaraska Euskara Elkarteari aipatu kopurua nere kontutik kentzeko baimena ematen diot
Sinadura:

☐ Eskura.

Bazkidetza txartela bete duzunean, Abaraska Euskara Elkarteko kide bati eman edo bulegora ekarri:Euskadi Etorbidea z/g TRINTXERPEKO AZOKA, 2. solairua. Ordutegia:11:00-13:00 eta 18:30-20:00. Tlf.:943.39.10.00.
Zure dirulaguntza gure kontu korrontean ere sar dezakezu: Euskadiko Kutxa, 3035 0010 89 0100041886

TESTUAK: ERKUDEN MUGURUZA / BERNAR ARRATIBEL

san pedro

Sayonara Zigor

Arte ederretan lizentziatutako sanpedrotar honek, arte munduan ibilbide luzea egina du. Bide honetan, lehiaketa, ikastaro eta erakusketa desberdinetan parte hartutakoa da. Hmalfeitoh taldearen partaide, orain orain lan propioei begira dago; honen erakusgarri "Zeramika artistikoaren Zarauzko nazioarteko bosgarren lehiaketa"n parte hartzea eta lehen sariaren irabazle izatea. Bertan irabazle suertatu den obrak, "udara" hain zuzen ere, modu ludiko batean egiten dio aurre hiri esparruari, ohizko monumentuaren hersturari keinu ironiko bat egiten.

Hau aprobetxatuz bere proiektu eta ideiak azaltzeko elkartu gara berarekin.



Zer suposatzen du zure ibilbidean sari honek?

Sari honek nire ideien konfirmatzea suposatzen du. Aukeratutako bidea egokia dela eta nire lanerako aproposena dela. Bizpairu urte izan ditut zalantzan, baina sari honekin konfirmatu egin dut.

Azaldu hitz gutxitan " UDARA" zure eskultura.

" Udara" lehiaketaren izenburua zen. Hala ere, ez dut espreski udari buruzko eskultura bat egin, baizik eta lehiaketak proposatzen zuen leku zehatzerako.

Lehiaketaren oinarrietan jartzen zuen non kokatuko zen; horregatik lekuan pentsatzen egin nuen batez ere. Villa Mundia Parkea, oso leku berdea da, palmerak, belarra... gainera, egunero haur pila egoten da bertan jolasten. Nik uste dut hori izan dela irabazteko arrazoi nagusia, zeren beste lehiakideek obra pertsonala aurkeztu zuten.

Oraingoan sari honengatik bildu gara, aurretik ze beste erakusketatan parte hartu duzu?

Ikasle nintzen bitartean, klasekideekin egindako erakusketa kolektibo batzuetan parte hartu nuen. Bestela, ez naiz inoiz Pasaiako ingurutik atera ; 12cmX12cm, Hmalfeitohn egindako erakusketak baino ez ditut egin.

Zergatik erabaki zenuen zeramikara konkretuki dedikatzea?

Unibertsitate garaian txoke fuerte bat izan nuen han erakusten ziren tendentzien aurrean, eta orduan erabaki nuen nire kabuz ikastea, gauza praktikoak eginez, antzerki-taldeentzako, herri mailako festetan parte hartzeko modukoak. Hasiera batean, poliesterra eta papera material aproposenak bezala nituen, baina urteekin ikusi nuen buztinarekin oso ondo moldatzen nintzela, eta karrerako azken bi urteetan erabaki nuen zeramikarekin lan egin behar nuela. Saiakera batzuk eta gero, Galiziako Sargadelos fabrikako topaguneetan hartu nuen erabaki hau.

Urte hauen laburpen bat eginez, kontaiguzu zer egin duzun.

Unibertsitateko lehen kurtsoan oso gustura egon nintzen, praktikoa zen, marrazketa, eskultura, pintura, historia pixka bat. Baina bigarrenean, tendentziekin txokea izan nuen eta erabaki nuen nire ikasketak esperientzia praktikorantz bideratzea. Orduan, Ikaro tailerrean egon nintzen uda bat lanean, bertan ETB eta inguruko antzerki-taldeentzako lan egiten.

Esparru praktiko honetan gehiago sartzeko, lagunen artean Hmalfeitoh taldea sortu genuen, hori guztiontzako esperientzia bat izan zelarik plastika munduan, baina baita talde bezala lan egiteko ere.

Hor egin ditugu hainbat lan; niretzat hoberenak Kilimetroetako panpinak, periodiko-paperarekin eginak. Baina beste esparru batzuk ere landu ditugu; antzerki mailan, tabernak girotzeko...

Une bat iritsi zen gure espresio propioa sortu nahi genuela. Horregatik, zeramikarekin hastea erabaki genuen. Labe bat edukita, errazagoa da betirako diren gauzak sortzea. Material aberatsa da zeramika, betirako iraunkortasuna du eta lantzeko ere erraza da, behin teknika ikasita. Baina arazo batzuk sortu dira eta ibilbidea aldatu beharrean topatu gara.

Larrosa ala arantza bidea izan da zurea?

Bien nahasketa bat. Inoiz ez dut arazorik eduki nire ideiak aurrera ateratzeko. Udalak pila bat lagundu digu taldeari, batez ere lokala ematen, konfidantza puntu bat izan du guregan eta nik uste dut guk ere erakutsi dugula.

Bestalde, zeramika lantzeko orduan zailtasun handiak topatu ditut. Labe bat jartzeak suposatzen du elektrizitate pila gastatzea, ingeniariak, peritoak, azken finean diru -inbertsio handia. Horregatik, ibili behar naiz kultur etxeetan edo Galiziako Sargadeloseko topagunean.

Orain, bide honetan aurrera eginez, Japonera. Nolatan?

Egoera bati aurre egiteko. Nik erabakia nuen zein lan egin , baina ezinean aurkitzen naiz. Labea bagenuen (Aiako tailerrak emandakoa), baita lokala ere. Baina Pasaia osoan termitarekin gertatu dena gertatu da Alkateordetzako etxean ere eta bertan behera utzi behar izan dugu. Udalak obrak egingo ditu, baina luzatu daiteke. Horregatik norabait joatea erabaki nuen, nire lanarekin jarraitzera.

Berriro unibertsitatera joan eta tutoreari nire egoera azaldu eta gero, zentro desberdinen aukerak ikusita, Japonera joatea erabaki nuen.

Zentroa Shigaraki deitzen da. Lan egiteko askatasun osoa eskaintzen du, laguntzileak, teknikoak, teknologia aurreratua ere. Zentro internatu bat da, baina egiten dena lana da, ez dago ikasketa-planik, ezta azterketarik ere, Holanda, Finlandia eta Frantziako zentroetan gertatzen den bezalaxe.

Zorte handia izan dut selekzio internazional batean aukeratu nautelako eta nire asmoa da ahalik eta obra onenak egitea batez ere tamaina handian.

San Pedron non kokatuko zenuke zure eskultura?

Egia esan, ez nekien zer egin eskulturarekin, etxean jartzeko handiegia zen, eta pentsatuta nuen herriko toki batean kokatzea, torreko iturrian, hain zuzen ere. Baina irabazle suertatu denez, Zarautzen geratuko da. Villa Mundia parkean, Sanzenea eta musika-etxearen artean, hain zuzen ere.

Oarsoaldeako artista bat eta historiko bat?

Andoni Treku, eta historikoa, Honoré Dounier, azken hau marrazkilaria zen eta eskultura egiten bukatu zuen.

Zein hiru gauza eramango zenituzke irla desertu batera?

Aparejo bat, aiztoa eta kalamu-hazi batzuk.

Idazle bat? Xabier Montoia.

Musika talde bat? DUT

Aktore/sa bat? Karra Elejalde.

Bakalluna bat

'Olazar'-eko bodega, goizeko 11:30tan.

Piperrekin, tortillan eta gehiago.

Urtero bezela, iraila parean, Pasaia aldean oraindik geratzen diren 'makailo bikote' untzi biak gure herri santu honetara bueltatzen dira merkatu globaleko erosleen aurrean beraien harrapakinak trukatzera.

Noruegako uretan hiruzpalau hilabete eman ondoren, bertan harrapatutako makailo, 'burro', 'perro', eta 'fogonero' gatzatuak ETT ezagun batek fitxatutako koadrilla-mistoak deskargatu eta sailkatzen ditu 'Zorzano' tabernaren parean lehorreratuta dauden untzietatik.

Aurtengo kanpainan 1000 tona izan dira 'Bahía de Guipuzcoa-Bahía de San Sebastián' eta 'Olaberri-Olazar'en makailo bikoteen bodegetan.

Lana, gogorra eta nahiko gimnastikoa izan arren, amankomuna eta interaktiboa gertatzen da hainbat kafe, kalimotxo, txorrada handi, porro, abesti, eta garagardoren artean.

Emakumezkoen kasuan, behin goizean goiz untzietako bodegan sartu eta gero, bertan gatzez josirik eta bata bestearen kontra itsatsirik dauden makailuak arrankatu eta kajera handi batzuetan hala nola pilatzen dituzte geroxeago, gruek tamainu ezberdinen arabera arraina sailka dezaten: handia, erdikoa, txikia, barajilla eta menudoa, 6 edo 11 ordu pasata, burua erabat nahasteko lanaren ondoren, ordua 700 pezetatan kobratzeko.

Gizonek, berriz, orduko 1000 pezeta jasotzen dute bodega barruan egindako lanagatik. Eta kasu honetan, burua langile bakoitzaren arabera nahasteaz gain, askok, irabazitako diru zatiren bat masajista baten kontsulta dotorean gastatzeko tentazio izaten du.

Langile hauen artean, zonaldeko langabetu, etxeko andre eta ikasle asko ikus daiteke, baita Irun, Tolosa, Mauritania edo Camerun bezalako herrietatik etorritako batzuen batzuk.

Batzuk etorri eta besteak joan; auskalo Astigarraga-Hernani aldeko zein sagardotegitan dastatuko diren San Pedro aldean deskargaturiko makailo zoragarri hauek.

antxo

TXUTXUMUTXUKA

NOR MARIO CUEVAS NOLA CUEVAS ZER ILEAPAINTZAILEA

Mario Cuevasek Antxoko ileapaindegi zaharrenean lanean dihardu. Bere aitak utzitako lekukoari jarraiki, berrogei urte baino gehiago darama antxotarren buruak apaintzen. Herriko zaharrenek 'Paco y Paco' izenez ezagutu zuten ileapaindegia, izan ere, Paco izena zuen Cuevasen aita, eta baita ere berarekin batera lanean zihaurduen beste ileapaintzailea.

Nola hasi zinen lanbide honetan?

Eskola bukatzean eta 14 urte nituelarik nere aitarekin hasi nintzen lanean.

Azken urte hauetan, lanbideak orokorrean asko aldatu dira. Ileapaintzailearena baita ere?

Ikasteko era ez da berdina. Ni Loiolako eskola publikoetara joaten nintzen ilea mozten ikastera. Lehen ileapaindegian ikasten zen ilea mozten eta egun aldiz, jendea akademietara doa. Lan egiteko era ere ezbedina da. Leheno bizarra mozten zen askotan, eta gaur eguun ez da hori egiten. Orain tinteak eta bestelakoak egiten dira. Lanbidea asko aldatu da.

Zure ilapaindegitik pasa den pertsonaiarik ospetsuena?

Irekiena edo kanporakoiena 'manguarras' izengoitiaz ezaguna zen Martin zen, 'Martin y Zumeta' galdaragintzan lan egiten zuena.

Esan ohi da ileapaintzaileek txitxumutxu guztien jabe direla. Egia al da hori?

Gaur egun ez. Lehen, denetaz hitz egiten zen, baina egun, politika dela eta, jendeak ez ditu gauzak hainbeste adierazten. Orain, jendea beti presaka dabil. Ilea moztera etorri eta segituan alde egiten dute. Leheno, ilapaindegia biltzeko gunea zen, denbora pasa etortzekoa. Orain ez; orain denak korrika dabiltza.

Zer nahiago, makinila edo goraixiak?

Goraixiak. Zailagoa da lan egiteko, baina lan txukunagoa lortzen da. Horretan ez dago zalantzarik.

Zein da inoiz egin duzun ile mozketarik bitxiena?

Behin, mutil gazte batek, tximista bat egiteko eskatu zidan, azeriaren 'Z', alegia. Alde egin zuenetik hamar minutu baino pasa ez zirenean, amarekin bueltan etorri zen, eta amak ilea berriz mozteko eta egindako hura konpontzeko agindu zidan.

Gizonentzako ileapaindegia da hau. Permanenteak, metxak eta bestelakoak egiten dituzu?

Nik ez. Gazteagoak direnak gaur egun bai egiten dituzte, baina nik ez. Ni lan tradizionalak egiten ditut.

Zu apaintzeko zeinengana jotzen duzu?

Beste ileapaintzaile batengana, Antoñanarengana, leheno eliz aurrean pelukeria zuenarengana. Nik berari mozten diot eta berak neri.

Badirudi, gaur egungo gazteek ilea luze uzteko joera dutela eta leheno baino gutxiago doazela ileapaindegira...

Ez. Orain askoz jende gehiago dator. Gutxi dira ilea luze uzten dutenak. Gehienek makinilla eskatzen dute.

Noizbait alde egin dizute goraixiek?

Ez. Oso zaila da. Beldur den jendea badago baina norbait moztea oso zaila da.

Ileapaintzaile bati ilea hartu dakioke?

Noski. Horretan aritzen den jende asko dago.

Antxoko zeini orraztuko zenioke gustora?

Jende garrantzitsua pasa izan da hemendik, baina ez dut nahi berezirik horretan.

Batazbeste, zenbat pertsona igarotzen dira astebetean hemendik?

90-100 inguru.

Zure lekukoa hartzeko zain norbait al duzu?

Ez. Nere semeak ez du nahi eta oraingoz ez dago inork. Baina, zeinek daki... agian ausarten bat azaltzen da.

Muebles Altzariak RUIZTEGUI, s.a.
MOTA GUZTIETAKO ALTZARIAK
ZURE NEURRIKO FINANTZIAKETA
Nafarroa hiribidea, 15
Tfnoak.: 943 510389-510736
Faxa: 943 510494
20110 PASAI ANTXO

PITXI - TXULO
JATETXEA - TABERNA
Eguneko Menuak eta Karta Zerbitzua
Eskalantegi 118, Molinao auzoa
PASAI ANTXO
tlf.:943.52.07.70

KAMIO Taberna
1934
Gure Zumardia 27-20110-Pasaia (Gipuzkoa)

Lanak antxoko kaleetan

Abuztuan hasi eta urriaren hasiera arte gure barrutiko Gelasio Aranburu kaleak eta azokak bat egiten duten hortan moztuta izango dugu errepidea lurrazpiko hodi baten jartzea dela eta.

Lan hauek, Pasaiako Badia berreskuratzeko egitasmo erraldoiaren zati bat besterik ez dira. Hala, Buenavistako 'Benedictine' aldetik hasita Antxo aldera datorren lurrazpiko hodiak marealtan izango du amaiera, bertara euri-urak jaurtiko direlarik batez ere. Gainera, lurrazpiko hodi-sare bat osatzeko asmoa dago, Molinao aldetik marealtara joango den hodia ere egitekotan bait dago beste batzurekin batera.

Segituan igarriko dira Antxon lan hauen emaitzak, euri-jasa handien ondorioz uholde gehiago ez izatea espero baita, Buenavista aldetik eta Molinaotik gure barrutira zetorren ura lurrazpiko hodi zabal hauen bitartez zuzenean marealtara joango baita. Gainera, ur zikinak ez dira gure barrutiko ibaira zuzenean jaurtiko, Molinaon eraikiko den ur-bonbaketa sistemaren bidez aipatu ur zikinak pasaiako badiaren kanpokaldean kokaturik dagoen kanpo-emisariora joango baitira.

Iparra kartzelaratu dute

Imanol Iparragirre espetxeratu dute Garzón epailearen aginduz polizia nazionalak Ekin erakundearen kontra burututako operazioan. Berarekin batera ezker abertzaleko beste 19 militante atxilotu zituzten. Madrilera trasladatu eta handik bi egunetara epileak 18 lagunen kartzelaratzea agintzen zuen autoa kaleratu zuen. Atxilotuen defentsak autoa errekurritu du espetxeratuen askatasuna eskatuz. Defentsak aurkeztutako helegitean, ezker abertzaleko militante hauen aurkako benetazko frogarik ez egotea salatzen da, eta operazioaren benetazko helburua legezkoa den erakunde bat ez legezko bihurtzea dela defenditzen dute.

Horretaz gain, Madrilera Imanol Iparragirreri sostengua ematera joandako zenbait senide eta lagun zeramatzan autobusa harrikatua izan zen Pasaiaruntz bueltan abiatu berri zela, Madrilen bertan.

Matrikula Zabalik Antxoko Txirrita-AEK euskaltegian

Antxoko Txirrita-AEK euskaltegikoek matrikulatzeko epea oraindik ez dela amaitu jakinarazi nahi dizuete. Beraz, euskara ikasteko aukera paregabea galdu nahi ez baduzu, izena eman lehen bait lehen AEKk Antxon duen euskaltegian. Bulego ordutegia honako hau da: goizez 10etatik 1'30etara eta aez 4'00etatik 8etara. Informazio gehiago nahi izanez gero 943.52.55.45, telefono zenbakira deitu.

antxokeriak

Antxoko kanpai-hotsak

"...eta leku askotan betiko galdua den hizuntza bat deskubritu dut bertan: kanpai-hotsen hizkuntza". Hala zioen Pako Aristiren artikulu baten hasierak.

Gogoko bide ditu kanpai-hotsak, beste hainbatek bezala. Paisaje akustiko gertukoa osatzen omen digute, denboraren galbahean geldituriko une goxoekin biltzen gaituen zilbor-hestea omen dira. Nik neuk, akaso, halakorik sentituko nuen inoiz. Zin dagizuet, hori bai, inoiz hala izan bazen, ahaztua dudala aspaldi.

Izan ere,gaueko hamaiketan inork aurkitzen al dio erromantizismo zantzurik lau kanpai-hots sakon entzuteari? Eta minutu batera berriro burmuinean iltzatzen zaizkigun hamaika sakonak berrentzuteari? Ba al da madarikaziotan hasiko ez den inor ordu betera beste lau zorrotzen ostean, etxeko isiltasuna daldarrean astintzen duten hamabi kanpai-hots sakonekin hasten direnean? Gaueko hamaiketan hasi eta hamabiak bete orduko, berrogeita hamalau kanpai-hots, zorrotz eta sakonak! alafede! Deskantsurako giroa ez da oso egokia, baina ez dakizue zein altzo akustiko goxoa dugun! Norbaitek probatu nahi badu, datorrela gurera, 20110 kanpandorre auzoa, Gure Zumardia.

Erdiak direla iragarriko duten bi zorrotz eta sakon horietaz ez naiz ahaztu, haiekin berrogeita hamazazpi dira, baina, masokismoa dirudien arren, horiek ez didate molestatzen jada.

AGUSTIN MIGELTORENA

Memoria historikoa berreskuratzeko helburuarekin, Pasaiako Udalak aurki aurkeztuko du herriko kale-izendegia aldatzeko proposamena. Herriko toponimia galdu ez dadin, hainbat kale-izen aldatzea proposatzen da, beti ere, herritarren iritziak eta bestelako proposamenak kontutan hartuz.

TESTUA OLATZ MITXELENA ARGAZKIAK ZARRANZ ETA ARNASA EUSKARA ELKARTEKO ARGAZKI BILDUMA

Kale-izendegiaren aldaketa, herriko ondare historikoa berreskuratzeko saioa

Kale-izendegia aldatzeko orain luzatzen den proposamena, udalak herriko toponimia berreskuratzeko hartutako erabakiari erantzuten dio. 1992an, Pasaiako Udalak Euskaltzaindiarekin batera, Angel Mº Elortegik Pasaiako Toponimiari buruz egindako azterlana argitaratzea erabaki zuen. Ordurarate aztertu gabeko arlo horri nolabait jarraipena eman behar zitzaiola erabaki zen orduan. Honela, 1993an 'Kale izenak izen toponimikoetara egokitzeko azterlana' egiteko beka eskaini zen. Ebasa taldeak hartu zuen lan hau egitearen ardura, eta hauen lana Angel Mari Elortegi berak eta Euskaltzaindiako Onomastika batzordeko Patxi Salaberrik gainbegiratu eta zuzendu zuten. Lan honetan proposatutakoa, euskara batzordean lahendabizi eta jarraian udal plenoan eztabaidatu zen, eta orain aurkeztuko den proposamena, Udalak onetsitakoa da.

Juan Carlos Alduntzin, Pasaiako alkatearen hitzetan, orain plazaratuko dena "proposamena irekia da, herritarren iritziak eta proposamenak aztertu egingo direlako". Proposamena urrian bidaliko da aldizkari ofizialera eta han argitaratu ondoren, hilabeteko epea izango da alegazioak egiteko. Alegazioetarako ereduak banatu egingo dira, eta nahi duenak bete eta denbora tarte horretan euskara zerbitzuan aurkez ditzake.

Urrian zehar, kale-izenen aldaketei buruzko informazio kanpaina burutuko da barruti guztietan. Donibanen eta Antxon, erakusketak egingo dira hilaren 17tik 22ra bitartean, eta berdin, kale bakoitzak kronologikoki izan dituen izenak, izenen azalpena, bai toponimoenak bai bestelakoenak, inguruan zituen toponimoak, gure proposamenak eta hauen forma normalizatua, hau da, toponimo horiek, egun, nola idatzi behar ziren".

Izaskun Aldezabal, Ebasa taldeko kidea izateaz gain, aldizkari honetako hizkuntz arduraduna da. Berak azaldu dizkigu azterlan honi buruzko zenbait gora behera.

Donibaneko San Juan kalea.

Ikerketaren ardatz nagusiengatik galdetuta, zera azaldu digu Izaskunek: "Alde batetik, Angel Mª Elortegiren 'Pasaiako Toponimia' izeneko liburua hartu genuen oinarri, eta bestetik, Pasaiako barruti guztietako planoak. Angel Marik berak ematen ditu planoak, baina horretaz gain, portuko eta hirigintzako planoetara jo genuen. Kale guneetan zeuden toponimoak kokatzen joan ginen plano gainean. Beste lan paralelo bat ere egin genuen; San Juango artxiboetara joan eta han akta liburuetara jo genuen, honela kale-izen bakoitzarekin fitxa bat egin genuen. Fitxa hauetan jartzen genituen, kale bakoitzak kronologikoki izan dituen izenak, izenen azalpena, bai toponimoenak bai bestelakoenak, inguruan zituen toponimoak, gure proposamenak eta hauen forma normalizatua, hau da, toponimo horiek, egun, nola idatzi behar ziren".

Ikerlan honetan hainbat kaleren izena aldatzea proposatzen da, baina beste batzuk, aldiz, manten-tzen dira. Jakin nahi izan dugu zeintzuk izan diren irizpideak kale-izen bat mantendu edo aldaketa proposatzeko orduan. "Ikerketa lanak berak eskatzen zigun irizpide nagusi bezala toponimoa hartzea. Beraz, kaleen kokagunean toponimoren bat baldin bazegoen, ia automatikoki toponimora jotzen genuen".

Hainbat kasuetan toponimo ezarekin topatu dira ikerlariak. "Toponimoak ez zeuden kasuetan, eta hori gertatu zaigu, oro har, Pasai Antxon,

30. hamarkadako antxoko irudia.

San Pedroko irudi zaharra.

beste irizpide batzuk izan ditugu kontutan; batetik, kale-izen horrek barrutian bertan duen tradizioa, eta bestetik, herri izendegiarekin armonia orokor bat mantentzea; kale izen horrek zer lotura zeukan herriarekin aztertu da, alegia".

Erabili diren irizpideak hobe ulertzeko adibide zehatz batzuk komentatzea eskatu diogu Izaskuni. "San Juanen, adibidez, ez da aldaketa berezirik egin toponimo asko dagoeneko jasoak daudelako. Toponimoa dagokion lekura eramaterakoan aldaketaren bat badago, halere; Bordalaborda-rena dugu kasua. Bordalaborda kalea Bordaundi kalea izatea proposatzen da, eta Lezo Bide kalea, berriz, Bordalaborda, Bordalaborda astillero inguruko toponimoa izan delako beti. Aldiz, Bordaundi, inguru horretako baserri baten izena zen".

Antxoren kasuan, besteren artean proposatzen da, Zumalakarregi ordez, San Fermin kalea jartzea. "Ikusita barruti guztiak daukatela beren patroiaren izeneko kalea, Antxori ere bazegokiola iruditu zitzaigun, are gehiago ikusita Zumalakarregik Antxori ez ziola ezer berezirik esaten"

San Pedro eta Trintxerpe inguruan berreskuratu beharreko toponimo oso zaharrak daude. "Hemen badaude toponimo batzuk ia derrigorrez berreskuratzekoak iruditu zitzaizkigunak, esaterako, Illunbe, Trintxer, edo Salbio. Trintxer baserria, orain Igueldo kalea den horren inguruan zegoen. Illunbe izena Euskadi Etorbiderako proposatzen da, toponimo zahar bat berreskuratuz, eta hain zuzen ere Euskadi Etorbidea izenak ez duelako Pasaiarekin lotura berezirik. Salbio, berriz, zaharrenen artean ezaguna da oraindik".

Azterlanean, hain zaharrak ez diren toponimoak edo bigarren mailako toponimoak ere bereizten dira. "Badago kale multzo bat, Renteria, Oiarzun, San Sebastian...mota horretako izenekin. Guk proposatzen dugu kale horien izenekin hain zaharrak ez diren toponimoak berreskuratzea, kale-izendegian nolabaiteko armonia gordetzeko".

Esan behar da , denak ez direla aldaketak. Izan ere, herriko toponimia zaharra jasotzen dituzten kale izenak ezagunak dira egun gure artean. " Araneder, nahiko toponimo zaharra da. Bere lehenengo agerraldia 1685ekoa da. Torreatze ere ahozko tradizio zaharrekoa da. San Juanen kale izen gehienak dira toponimo zaharrak eta Antxon, Kupeldegi, Eskalantegi eta Hamarretxeta aipa daitezke".

Udalak herriko memoria historikoa berreskuratzeko ahalegin bat bezala aurkeztu du kale- izendegia aldatzeko proposamena. Izaskun Aldezabalentzat, azterlana, "memoria hori berreskura-tzeko ikerketa-lan bat da; kontestu horretan koherentzia gordetzen duena. Horren gainean hartu behar diren erabakiak, berriz, herritar guztioi dagokigun kontua da, beti ere arrazonamendu logikoak eta koherenteak planteatzen diren neurrian".

ALDAKETAREN GAUZATZEA

Kale izenen aldaketa ez da bat-batekoa izango. Esan bezala, alegazioetarako hilabeteko epea egongo da, eta jarraian, oraindik zehaztu gabeko denbora tarte bat zabalduko da alegazio horiek aztertzeko. Azkenik, proposamen berriak plenoan eztabaidatuko dira behin-betiko kale-izendegia onartzeko. Udalak ere denbora beharko du, barne aldaketak gauzatzeko eta bitartean, hainbat ekimen jarriko dira martxan herritarrei aldaketa ahalik eta errazen gertatzeko.

Gaur egun Donibaneko 'Bonanza Paseoa' dena mende haseran.

Pasaiako Kale-izendegi berria

ANTXO

Gaur egungoa	Berria
Blas de Lezo	Berrabea kalea
Gelasio Aranburu	Kaiko kalea
M.Azurmendi	Istillu kalea
Oarso kalea	Zurrunbullas kalea
Zumalakarregi	San Fermin kalea



DONIBANE

Gaur egungoa	Berria
Bonanza paseoa	Bonantza pasealekua
	Bideberria
	Iturrizarreko kalea
	Mazuerako plaza
Bordalaborda	Bordaundi kalea
Lezo-bide	Bordalabordako kalea
San Juan XXIII	Juan de Muru kalea
Portuak egindako plazari	Bizkaiko plaza

SAN PEDRO - TRINTXERPE

Gaur egungoa	Berria
San Pero kaleko plazari	Aita Manuelen plaza
Arraunlari	Blas de Lezo kalea
Bidasoa	Larrabide kalea
Espinosa Monteros	Seoaneko markesaren kalea
Euskadi Etorbidea	Illunbe etorbidea
Gudarien plaza	Errotazar plaza
Igueldo	Trintxer kalea
Ingeniero Marquina	Errekako kalea
Jaizkibel	Arraska kalea
Marques de Seoane	Zamatete plaza
Martimuno kalea	Martinbonako kalea
Morales Oliver plaza	Iturritxoko plaza
Oyarzun	Migelmendi kalea
Pasaman alargunaren kalea	Salbioko kalea
Renteria	Mariel kalea
Ricardo Arrillaga	Salinasborda kalea
San Sebastian	Txokoa kalea
Tirri tarren plaza	Pintorekoa plaza
Urgull	Arritxogaña kalea
Urestarazu anaiaren kalea	Fuertetxiki kalea

Oarsoaldeko Euskara Batzordearen egitasmoak abian

Oarsoaldeko Euskara Batzordeak 2000/2001 ikasturteko egitasmoen aurkezpena egin berri du. Aurkezpen ekitaldian eskuladean euskararen normalkuntzan lanean diharduten eragileak bildu ziren, bertan, datorren ikasturterako egitasmoen berri jasotzeko. Jose Luis Agirretxe, eskuladeko euskara batzordearen teknikariak, azaldutakoaren arabera, orain arte aurrera aterarako gunekako funtzionamenduari jarraipena emango zaio, Oarsoaldean sektore berean lan egiten duten gizarte eragileak bilduz, eta, instituzio eta elkarteen arteko elkarlana bultzatuz. Jarraian, gune bakoitzeko funtzionamendu eta helburuen berri eman zen. Irakaskuntza, eskola kirola lan mahia, eskolatik kalera egitasmoa, merkataritzako gunea, lan munduaren gunea eta udaletan euskararen egoera normalizatzeko egitasmoei jarraipena emango zaie, eta hauekin guztiekin batera, sortu berri diren bestelako egitasmoak jarriko dira martxan, hain zuzen ere, helduen euskalduntze-alfabetatze gunea eta euskarazko hedabideen gunea. Azken honetan, eskualdeko euskarazko komunikabideak biltzen dira, eta elkarren berri jasotzeaz gain, Oarsoaldean euskarazko multimedia gunea sortzea dute helburu

Oarso Telebista martxan eta indarberriturik

Uztailetik hona ari da Pasaia, Errenteria-Orereta, Lezo eta Oiar-tzungo herri telebista berriro ere martxan. Pasa den udaberrian etenaldi bat izan zen emisioetan eta denbora tarte horretan telebistaren egitura aldatze bat egin zen. Orain asmo eta indar berriekin ekin diote emititzeari. Informatiboak dira emisioaren ardatza, egunean hirutan emititzen direlarik. Aurrerantzean, aldiz, albisteak erredakziora iritsi ahala emititzea izango da helburua. Era berean, eta ikusleek OTB ikusteko izan ohi dituzten zailtasunak gainditu nahian, Jaizkibelgo antenatik emititzea azter-tzen ari dela igorri dute.

Ibainet, eskualdeko informatika gunea, bazkidetza kanpainan

Orain bi urte pasa sortutako Ibainet egitasmoak bazkidetza kanpaina jarri du abian. Euskalduna bazara eta zure lan zein aisialdirako ordenagailu bat behar baduzu, hau da zure aukera.

Ibainet Oarsoaldeako informatikarako eta telematikarako euskal gunea da, informatika kontuak euskaraz jorratzeko euskaltzaleon topagunea alegia. Errenteria-Orereta-ko Iztieta auzoan kokatzen den lokalean, 25 ordenagailu (PC eta Mac-ak), inpresorak, eskanerrak... eta beste hainbat tramankulu informatiko aurki ditzakezu.

Gainera, urtean zehar hainbat ikastaro eskaintzen ditu Ibainetek, hala nola: Internet, Ofimatika, Oinarrizko Informatika, Diseinu Grafikoa eta Maketazioa, Internet sarean behar adina aritzeko aukera...

Ibainet Oarsoaldeako Informatika guneko bazkide izateak 15.000 pzta suposatzen du urteko. Hala ere, urte erdiko zein 3 hilabeterako bazkide egin zaitezkete. Hona hemen helbidea:

Ibainet.
Oiartzun kalea 5, behea, 20.100
Errenteria -Orereta
Tel.:943.34.40.59
Ibainet@ibainet. euskalnet.net

JOKALDIRIK ONENA!
¡LA MEJOR JUGADA!
Matrikula zabalik!
Udal Euskaltegian ikasi, gozatu eta arrakasta lortuko duzu; euskara ikastea saria duen erabakia baita.
Euskadi etorbidea 61ean gaude (itsas-etxe ondoan) edota deitu 943 39 33 18 telefonora
E-mailez ere egin dezakezu zure matrikula: euskal@pasaia.net
UDAL EUSKALTEGIA

URTXINTXA BULL
URTXINTXA BULL, S.A.
Gipuzkoako English Mark Darts operadoreak
Gure Zumardia 13, behea
Pasai Antxo. Tel. : 518527

Zer iruditzen zaizu kale-izendegiaren aldaketa?

Zergatik?

1 Pedro Ibargarai.
67 urte. Jubilatua.

Oso ondo iruditzen zait aldaketa, izen euskaldunak baldin badira.

2 Julen Etxeberria.
38 urte. Inprentako komertziala.

Berdin zait. Ez zait bat ere axola.

3 Peio Ibargarai.
40 urte. Langilea.

Ados nago, toponimiaren arabera egiten dena ondo dago. San Pedron adibidez, ez hainbeste, baina Trintxerpen edota Zamateten badaude kaleak ez dutenak zerikusirik. Ohitzea kostako zaigu, jakina, baina beste toki batzuetan egin da eta ohitu dira; gu zergatik ez?

4 German Intxausti.
29 urte. Informatikoa.

Niri ez zait ondo iruditzen. Kriston lioa izango da, denak nahastuko gaitu. Eta gainera denok karneta berria egin beharko dugu.

5 Josune Biurrarena.
34 urte. Irakaslea.

Gaur egungoak ondo daude. Aldatzen badira ez dakit zein arrazoiengatik izango den baina helburua antzinako izenak jasotzea baldin bada ondo iruditzen zait.

6 Idoia Larrañaga.
28 urte. Irakaslea.

Ez diot zentzurik ikusten. Gu beti bizi izan gara izen horrekin eta orain ohitzea roilo bat da. Ez nago oso enteratua, baina ez zait ondo iruditzen.

7 Mª Dolores Legorburu.
41 urte. Begiralea jangela batetan.

Oso ondo iruditzen zait. Herriko izenak eta ohiturak mantentzen baldin badira oso ondo iruditzen zait.

8 Asun Mariño.
30 urte. Dendaria.

Ez nekien egingo zutenik ere, baina oso ondo iruditzen zait, ezagunak badira behintzat.

9 Joxean Cámara.
31 urte. Igeltseroa.

Nire ustez folloi bat izango da. Orain dela gutxi trafikoaren direkzio guztiak aldatu dituzte eta orain kaleen izenak...

10 Carlos Gómez.
67 urte. Liburu-saltzailea.

Ondo iruditzen zait, baina ia behingoz behin-betikoa erabakitzen den eta ez den berriz ere aldatzen. Hori izango da helburua, ezta?

11 Joseba Otxoa.
19 urte. Ikaslea.

Egia esan, ez zait asko inporta. Baina tontakeria bat iruditzen zait beti izen bera izan duen kale bat aldatzea. Gainera, niri berdin zait nola deitzen den.

12 Jose Luis Errandonea.
42 urte. Tabernaria.

Aldaketa horrek eztabaidak sortuko ditu herrian. Ene ustez hobe izango litzateke, aldaketaren bat egitekotan, 25 kalea, 31 kalea, e.a. jartzea.

Gregorio Legorburu 'Lexo', Asier Tolosa, Urko Kortajarena eta Jose Miguel Beraza solasean

Traineruak zintzilikatzean

TESTUA OLATZ MITXELENA

Irailean gaude eta Pasaian, urtero legez, arrauna da gurean gai nagusia. Denboraldia amaitu berri da, eta guk, Pasaiako lau trainerutako ordezkariak bildu nahi izan ditugu mahai inguruan, ez ohikoa den argazki bat osatuz. Aurtengo arraun-denboraldia izan dugu mintzagai eta baita ere Pasaian tradizioz nagusia den kirol honi buruzko hainbat gora behera ere. Aurtengo norgehiagoka amaituta, patxaraz ekin diogu solasaldiari.



Gregorio Legorburu Salaberria, 'Lexo', Koxtapeko bozeramaile gisa aritu zaigu, Urko Kortajarena, Trintxerpeko Illunberen ordezkari, Asier Tolosa, San Pedroko Libiaren arraunlari gisa eta, azkenik, Donibaneko Arraunlariak tripulazioan aritzen den Jose Miguel Beraza.

Elkarrizketari hasiera emateko, aurtengo arraun-denboraldiaren balorazioa egin dezaten eskatu diegu, eta orokorrean, denak baikor ageri dira egindako lanarekin. Donibanekoko Berazak zera esan zigun: "nahiko pozik gaude egindako denboraldiarekin, orain dela hiru hilabete ez genuelako uretara ateratzeko trainerurik jende faltan ginelako. Azkenean, lortu genuen trainerua osatzea eta ligarako klasifikatzea. Gerora, hor ibili gara, 5. edo 6. postua lortzeko borrokan, eta 4. postua ere eskuratu izan dugu. Kontxan sartu izana, urteko nahia lortzea izan da. Beraz egindako lana positiboki baloratzen dugu". Donibaneko Arraunlarien antzera, San Pedron ere arazoak izan dituzte trainerua osatzeko. " Neguan ez geneukan trainerurik eta 7 edo 8 lagun aritu gara uretara ateratzen. Azkenean jendea etorri zen eta denboraldia espero genuena baino hobeto burutu dugu. B ligan, baina nahiko ongi aritu gara" dio Asierrek.

Norbaitek pozik egoteko arrazoiak baditu, hori, Illunbeko Urko Kortajarena dugu, izan ere Trintxerpetarrek izugarrizko denboraldi ona egin dute. "Gure helburu nagusia Kontxan sartzea zen. Lortu genuen eta gainera ondo, 2. postua eskuratuz. Ligan gaizki hasi ginen, bai-

Majestik

Oarso 13, behea esk. Pasai Antxo
Tel. 943 34 00 64 Fax 943 52 97 83
Irekita: 10:00/13:00 eta 16:00/20:00
Urtarrilak 22tik aurrera Larunbat arratsaldez irekita
WEB:http://www.iturgaiz.com
E-mail:majestik@iturgaiz.com

Pasai Antxoko dendan, nazioko zein inportazioko irudimenezko oihalen erakusketa handia eskaintzen dugu; eta Lezoko industrialdeko biltegian, eskaparateen apainketarako edozein motatako figurak dituzu alokatzeko. Gainera, mota guztietako karrozak 2000m2-ko erakusketan.

Gregorio Legorburu Salaberria 'Lexo'

1966an hasi zen arraunean, eta ordutik hona arraun munduan jarraitu du urterik utzi gabe. Egun Koxtapeko preparadorea da.
Arraunean zebilen garaikoa, 69.an, Kontxan eskuratutako 2. postua gogoratzen du.

Urko Kortajarena Zurutuza

11 urte arraunean. 8 Koxtapen eta Illunben azkeneko biak.
Urumeako bandera bat.
Koxtaperekin, Espainako bi txapelketa, jubenil eta kadete kategorietan.
Illunberekin 3. eta 2. postua kontxako estropadan.

Asier Tolosa Arrillaga



5 urte arraunean, lehendabizikoa Koxtapen eta azkeneko 4ak San Pedroko Libian.
Bi bandera eskuratu ditu, biak joan den arrun-denboraldian.

Jose Miguel Beraza

12 urte arraunean. Lehendabiziko hiruak Koxtapen eta Donibaneko Arraunlariak tripulazioan bere sorreratik.
95. Kontxako bandera.
Espainako 'zortzi'ko txapelketan, brontzezko domina,
Treineruen liga bat.
Euskadi eta Gipuzkoako txapelkataren irabazlea behin baino gehoiagotan.

na azkenean 5. postuaren inguruan mantentzea lortu genuen. Hoberena Kontxako estropada izan da. Trainerua apurtu genuenean beldur ginen Kontxarako, baina gauzak ondo atera zaizkigu eta kontent".
Koxtapekoak ere pozik ageri dira. "Gutxi gora behera espero genuena lortu dugu. Ligan irabazten hasi ginen. Izan ditugu estropada txarrak ere, baina, nik uste dut linea nahiko ona eraman dugula. Zazpi bandera lortu ditugu eta nere ustez denboraldi ona izan da" dio Lexok. Hala ere, Kontxak halako oroitzapen garratz bat utzi die, bigarren estropadan kale egin zutelako.
Solasaldian ari garela, patxada igerri da arraunlariengan. Koxtape izan ezik, gainontzekoek amaitu dute denboraldia. Lehiak eta norgehiagokak bazterrean utzi , trainerua zintzilikatu eta, orain, estropadak eta eguneroko etrenamenduen ezak eskaintzen dien denbora libreaz gozatzeko parada izango dute. Afari eta bazkari ugari ere, denboraldiaren amaieran. Etorkizunerako erronkak mahaigaineratu baditugu ere, goizegi omen da horretaz hitz egiteko. "Helburua beti da ahalik eta hoberen ibiltzea, baina hori lortzen dugun jendearen baitan egongo da. Orain helburu nagusia arraun egiteko jendea ekartzea da" diosku Berazak. Kirol helburuak denboraldiaren arabera finkatzen dira eta orain goizegi da horiek aurreikusteko. Denak ados ageri dira horretan.
Lau trainerutako ordezkariak bildu ditugu, Pasai Antxon, noski, eta ebitaezinak diren galderak egiteko garaia iritsi da. Lehiakortasuna dirudiena bezalakoa da arraunlarien artean?. Hasiera batean, denak ados ageri dira beraien arteko harremanak onak direla erantzuterakoan, baina iritziak plazaratzen doazen heinean, ñabardurak ageri dira erantzunean. Donibanekoko Berazak zera dio: " Gure kasuan, Koxtaperekin lehiakortasun handiagoa daukagu. Egunerokotasunean gure arteko harremanak onak dira, baina beti dago lehia gehiago Koxtaperekin Trintxerperekin baino, adibidez". Kluben arteko harremanaz galdetzerakoan, garbi dute, kasu honetan, arazoak handiagoak direla. 'Lexo'-ren ustez, San Juanen gertatutakoak konponbide zaila du eta kluben arteko harremana horrez geroztik zaildu egin da.
Lehiakortasunaz ari ginela, zera otu zaigu; Pasaiako traineru bakar bat osatzearen aukeraz galdetzea. Denak datoz bat garaitezina izango litzatekela baieztatzerakoan, baina, baita gauzatu ezinezko asmo bat dela esaterakoan ere. "Ezinezkoa" eta "oso zaila" dira en-tzun diren lehendabiziko bi hitzak. "Barruti bakoitza herri bat bezalakoa da eta jendea bere barrutiko traineruarekin identifikatzen da. Horrek jada zaila egiten du batzea" dio Urkok.
Arraunean aritzen diren gazteek negu osoa ematen dute entrenamenduetan. Egunero-egunero biltzen dira eta udaran ere ez dute oporretarako aukera. Arraunean ibiltzeko dituzten motibazioak ezagutu nahi izan ditugu. Asierrek dio: "negu guztia udaran pentsatzen pasatzen dugu. Talde giroa eta lortutako emaitzak ere motibazio garrantzitsuak dira". Nonbait, laguntasuna eta arrauna uztartzen dira. "Ni arraunean ibiltzen naiz kirola gustoko dudalako eta talde giroa ere oso ona delako" dio Urkok. Berazak urte asko daramazki arraunean eta berarentzat arrauna ia bizimodua da. "Orain entrenatu gabe nago eta dagoeneko zerbaiten falta somatzen dut. Droga baten efektua du. Ongi pasatzen dugu entrenatzen"

'Lexo', Asier, Urko eta Beraza solasaldiaren une batetan.

kontatzen digu.
Zalantzarik ez dago. Beraiek arraunakin gozatu egiten dute. Hala ere, gero eta begibistakoagoa da arraunean hasten diren gazteen eskasia. Oraingoz arraunaren etorkizuna arriskuan ez badute ikusten ere, kirol hau nolabait bultzatzeko beharra ikusten dute. Asierrek, Lizeoak orain urte batzuk martxan jarritako ekimena ekarri digu gogora. Bi ikasturtez edo, ikastolako ikasleek arraun egiteko aukera izan zuten. 'Lexo'-k dioenez orain dauden asko horrela hasi ziren eta horrelako ekimenei jarraipena emateak asko lagunduko lukeela defenditzen du.
Arraunaren profesionalizazioaz galdetzerakoan, ezezkor ageri dira denak. "Nik ez dut aukerarik ikusten arrauna profesionalizatzeko. Inor ez dago dirua emateko prest" dio 'Lexo'-k. Illunbeko Urko Kortajarena bat dator 'Lexo'-rekin. "Arrauna kirol herrikoia da. Ez da estatu guztian egin daitekeen kirol bat. Beraz, profesionalizazioa oso zaila litzateke. Berazak telebistak arraunarekiko mententzen duen jarrera salatu nahi izan du. "Telebistak ez du duro bat bera ere askatzen. Ez dago eskubiderik. Kexatu izan garenean, erantzuten dute telebistaz ez emititzekotan, sponsorrik ez genukeela izango, baina sponsorrek ematen dutenekin ezin da askorik egin". Urkoren arabera "ona litzateke kate pribaturen bat hurbiltzea ETB-ri konpetentzia egiteko".
Arraunaz bizi diren pertsona gutxi batzuk ere badaude, honek sortzen dituen arazoetaz mintzo dira. "Gutxi dira arraunaz bizi diren pertsonak eta horiek dauden klubetan arazoak egoten dira. Arraunlarien arteko ezberdintasun horiek arazoak sortzen ditu" dio Berazak.
Lehorretik badiara begiratzean, ohikoa da lau traineruak bertan ikustea. Bertan dute denek entrenaleku. "Beti gaude elkarri begira. Espioitza" dio Lexok, eta denak far egiten dute. Asierrek zera kontatzen digu: "esaten dizute arraun egin behar duzula eta hurrengo goizean zoaz eta mendian eta balkoietan beti dago jendea begira. Ez dakigu jendea nola entera-tzen den". Urkori ere harrigarria iruditzen zaio. "Iaz egin genituen hemen marka batzuk, eta hurrengo egunerako, entrenadoreak esan zigun Santiagotarrean marka guztiak jakin zituztela. Arraunlariok oraindik ez genekien egin genuen denbora".
Itsaso zakarra edo barea. Horrek ere eragina izan ohi du emaitzetan. Pasaitarren kasuan denek dute itsaso zakarra gogokoen. Berazaren ustez, itsaso zakarrarekin arraun egitea askoz dibertigarriagoa da. "Itsaso zakarrarekin arraun egiten ondo pasatzen duzu. Gozatu egiten duzu traineruak salto egin eta airean gelditzen denean. Beti esaten da arriskutsua dela, baina baita politagoa ere".
Eguneroko entrenamenduaz gain, emaitza onak lortzeko zer den beharrezkoa galdetu diegu eta zera erantzun digute ahobatez : "arraunlarien arteko giroa". Indarra garrantzitsua bada ere, denek dakite beste hainbat faktore ere kontutan hartu behar direla. Indarraz gain, taktikak, neurriak, esperientziak edota lasaitasunak berebiziko garrantzia dute.
Giro atseginean amaitu dugu elkarrizketa. Denboraldia amaitu da eta pozik daude herriko arraunlariak. Orain, patxada hartzeko garaia dute, baina hori bai, denek dute buruan dagoeneko datorren arraun-denboraldia. Ea hurrengo urtean Kontxa Pasaiara ekartzen duten!

DB
IKASLAN
GOI-MAILAKO LANBIDE HEZIKETAKO BERARIAZKO INSTITUTUA
DON BOSCO
San Markos errepidea z/g posta kutxatila 101, 20100 Errenteria
tel. 943 51 04 50/4/8 fax 943 52 92 20
WEB:http//www.donbosco.hezitek.net
E-mail:iefps@donbosco.hezitek.net

HSAOL BATXILERGOAK	ERDI-MAILAKO HEZIKETARAKO ZIKLOAK	GOI-MAILAKO HEZIKETARAKO ZIKLOAK
-Batxilergo teknologikoa -Osasun eta Natur Zientzien Batxilergoa -A eta D ereduak	-Soldadura eta Galdaragintza -Laborategia -Karrozeria -Ibilgailuen elektromekanika -Hotz klimatizazio eta bero ekoizpen instalazioen muntaia eta mantenimendua	-Produktu elektronikoen garapena -Analisi eta kontrola -Ekipo industrialen mantenimendua -Metal eraikuntzak -Prozesu eta eraikin instalazioetako muntaia eta mantenimendua

URRIA 2000

Hona hemen urrirako kultur agenda. Eskaintza zabala duzu eskuragarri hilabete guztian zehar. Gogoratu zure elkarte edo lan-taldeko ekintzek ere leku bat izan dezaketela hemen. Animatu eta bidali informazioa!

KALE-IZENEN ALDAKETEI BURUZKO INFORMAZIO KANPAINA

HITZALDIAK

Donibanen (Victor Hugon):
Urriaren 17an

Pasai Antxon (Kultur Etxean):
Urriaren 19an

Trintxerpen (Alkateordetzan):
Urriaren 24ean

SanPedron (Udal Aretoan)
Urriaren 26an

ERAKUSKETAK

Donibanen eta Pasai Antxon:
Urriaren 17tik 22ra bitartean

Trintxerpen eta San Pedron:
Urriaren 24tik 29ra ekainaren 5etik 25era.

ERAKUSKETAK

Antxo:
Jaizkibel Mendi Taldeak antolatuta, Bizkaiko Biraren argazkien erakusketa, Kultur Etxean, urriaren 2tik 14ra.

Iruñako Arte Eskolaren eskutik,

MENDIKO ARGAZKIEN PROBINTZIA MAILAKO LEHIAKETA

'Itsastarrak' Mendi Taldea antolaturik elkartearen 50. urteurrenaren ospakizunen barruan.
Gipuzkoako zaletu guztiek parte har dezakete. Paperean egindako koloretako argazkiak eta diapositibak onartzen dituzte. Lanak onartzeko epea abenduaren 16an maaituko da. Informazio gehiago nahi izanez gero, oinarriak, kultur sailean eskura daitezke.

PASAIAKO XIX. UMOREZKO ANTZERKI JARDUNALDIAK

Umorezko antzezlanak ikusgai, urriaren 19tik 22ra bitartean. Jarraian aipatzen diren antzezpenak taularatuko dira:

' Izarretako bitakora':
Urriaren 19an, 20:00etan, san Pedroko Udal Aretoan, Maskarada taldearen eskutik.

'Tú no tienes la culpa Federico':
Las Veneno taldeak antzeztuta, urriaren 20an, 22:30etan, Trintxerpeko frontoian.

' Màgia in vitro' , ' Tangoak' eta ' Libertad clowndicional':
Capsa Màgica teatre, Fanniplatz tangoak eta May Gorostiagaren eskutik, urriaren 21n, 22:30etan, Trintxerpeko frontoian.

'Hipo':
Urriaren 22an, 20:00etan, Udal Aretoan, Sexpeare & Yllana produkzioak aurkeztuta.

grabatu eta estanpazio teknikak erakusgai, urriaren 27tik azaroaren 12ra bitartean.

Trintxerpe:
'50 urteko historia' izenburupean, Itsastarrak Mendi Taldeak antolatutako erakusketa, Alkateordetzan, urriaren 9tik 22ra.

IPUIN MUSIKALA

'Musika lau haizetara'. Gu geu taldearen eskutik haurrentzako ipuin musikalaren kontaketa.
Urriaren 27an, ostirala, Trintxerpeko Udal Liburutegian, arratsaldeko 18:30etan.

HITZALDIAK

'Euskal Herriko untzi eraikuntza'
Hizlaria Jesus Maria Valdaliso. Oarsoaldeak antolatuta, urriaren 30ean, astelehena, 19:30etan donibaneko Victor Higo Etxean.

'Maketagintza untzi historiaren ikerkuntzan'
Hizlaria Jesus Maria Lizarraga. Oarsoaldeak antolatuta, urriaren 31n, asteartea, Donibaneko Victor Hugo Etxean.

A G E N D A

zuk zeuk!

FILMEA
"BOOGIE NIGHTS"
Zuz.: Paul Thomas Anderson



Egun hauetan Donostian ospatuko den Nazioarteko zinemaldian Europear kritikoen Elkarteal saituko duen Paul Thomas Anderson zuzendariaren lehenengo filma dugu hau. Zuzendari honek arrakasta eta ospea, kritika mailan behintzat, "Magolia" bere azken lanarekin lortu badu ere, nik bere lehen lan hau goraipatu nahi dut.
70. hamarkadaren bukaerako porno mundura hurbiltzen gaituen pelikula honek, Scorsese zuzendariaren mafia inguruko filmeekin zenbait puntu amankomun ditu; mafia inguruko filme horietan bezala, hemen azaltzen dena handinahiaz beteriko pertsonaia ezberdinen arrakasta eta gainbeheraren istoria baita. Humorea pelikulan zehar falta ez bada ere, nahilo pelikula garratza da, istoria, azken finean, iluna baita. Pelikula guztiz gomendagarria aktoreen lana eta istoriostrn originaltasunagatik, eta are gomendagarriagoa 70. hamarkadako look kitsch-a gustuko baduzue (Ze galtzak! Ze alkondarak!) Ez ezazu galdu filmearen azken sekuentzia, non pertsonai nagusiak, Dirk Diggler-ek (Mark Wahlberg), bere lan-tresna agerian uzten duen. Lasai, ez zaitezte konplexatu, faltsua baita! (Dinio eta Lecquio konteare-nak ere bai noski, teknologi informatikoak mirakuluiak egin ditzake.

IGOR MINTEGIA

MUSIKA
RUPER ORDORIKA
"GAUR"



Kafe antzokian mila zortziehun lagun bildu eta bertan grabatu zuen iazko azaroan Ruper Ordorikak bere lan berria. "Gaur" diskoa, zuzeneko diskoa da, non kanta guztiak ezagunak diren, hamabost, hain zuzen. Artistaren ibilbidea nolabait jasotzen duten kantak dira, bere hogei urtetako errepertorioa, askoz ere zabalagoa izan arren. "Gaur" honetan zenbait kanta zahar jotzerakoan egin dituzten moldaketak oso desberdinak dira. Kantarik zaharrena "Fas Fastum " da, bere soiltasunean poema kantatua izan liteke. " Hautsi da anphora" jarraitzaileek ezin ahaztu dezaketen beste titulu bat da. "Nor da" berriz, kantu peto-petoa da, amodiozko kantua, en-tzun orduko harrapatzeko modukoa. Kantuak oso bizirik sentitzen dira disko honetan entzun eta gero.
Zuzeneko album guztiek etapa baten amaiera suposatzen dute.
" Gaur" ez da salbuespena. Euskal Herriaren bizitzaren pare-parean existitu den istorioa baieztatzen du.

NAIARA MAYO

LIBURUA
'BEGIAK ITXI ETA KITTO'
Xabier Etxaniz Rojo



Etxanizen lanaren bilduma karrikan ikustea poztekoa da; are gehiago Trintxerpeko euskaltegi zaharrean, lapiko eder hartan, euskara iksteko parada izan dugun AEKko beterano askorentzat. Ez da nolanahiko mendeku goxoa, alajaina!
Edozeinen bizitzan gerta litezkeen pasadizoak aurkituko dituzu narrazio hauetan. Hala uste dut behintzat. Alta, ez dira kontakizun arruntak, ez horixe!. Ironiaz busti eta ustekabe galantaz hornitu egin ditu Etxanizek, normaltasuna, birtualitatezko egoera ...dramatiko? gorapilatsu? beltz? irrigarri? bihurtu duelarik.
Gainera, azaltzen dituen tokiak zein pertsonak ezagunak egiten dira, hamar minutu lehenago kalean ikusi bezala edo. Hau gutxi balitz, erabiltzen duen hizkuntza zuzena, erraza, freskoa, eta, Trintxerpetar bati dagokion bezala, lotsagabekoa da.
Tira, narrazio bat nabarmentzekotan, "Ezkontza" aukeratuko nuke, 'Tarantiniano' oso atera baitzaio. Oraindik ez baduzu irakurri, ez ezazu denbora gehiago gal.

DAVID ZAPIRAIN